**ZIERBENAKO UDALA**

IRAGARPENA, Zierbenako udalerriko La Cuesta auzoko 15. zenbakiko eraikinaren lerrokadurak aldatzeko xehetasun-ikerketari onarpena emateari buruzko iragarpenean egindako hutsak zuzentzeari buruzkoa. 18076

# Xedapen Orokorrak

## JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

**Zk-5762**

15/1997 LEGEA, urriaren 31koa, Urdaibaiko Biosfera-Gebenaldea Babestu eta Antolatzeari buruzko uztailaren 6ko 5/1989 Legea aldatzekoa.

Eusko Legebiltzarrak ondoko legea onartu duela jakinarazten zaie Euskadiko herritar guztiei:

URRIAREN 31KO 15/1997 LEGEA, URDAIBAIKO BIOSFERA-GEBENALDEA BABESTU ETA ANTOLATZEARI BURUZKO UZTAILAREN 6KO 5/1989 LEGEA ALDATZEKOA.

ZIOEN ADIERAZPENA

Urdaibaiko Biosfera-Gebenaldea Babestu eta Antolatzeari buruzko uztailaren 6ko 5/1989 Legea indarrean egon deneko lehenengo urteetan zehar, Gebenaldeko Zaingo Batzordeak jarduera administratibo bizia garatu du, bere lurralde esparruan jarduten duten alor sozial eta erakunde publiko eta pribatu guztien erreferentzi puntu bihurtu dena.

Legea indarrean jarri zenetik bildu den esperientziaren ondorioz, beharrezkotzat jo da lurralde esparruan sartuta dauden udalerrien zerrendari, bereizketa prozesuen ondorioz, zein Zaingo Batzordeko barneko funtzionamenduari eragiten dieten zenbait alde aldatzeari ekitea.

Horrela, 2. atala egokitu beharra jasotzen da, hain zuzen, Biosfera-Gebenaldearen mugaketak eragiten dien udalerriei buruzkoa, Ajangiz eta Arratzu udalerriak sartuz, Gernika-Lumo udalerritik banandu baitira, hurrenez hurren, 1990eko azaroaren 20an eta 1992ko urriaren 15ean Bizkaiko Batzar Nagusiek hartutako akordioen indarrez.

Halaber, legearen 18. atala aldatu beharra dago, Zaingo Batzordearen osaketari eta hango kideak izendatzako moduari dagokienez, Urdaibaiko Biosfera-Gebenaldean partaide diren eragileek partehartze handiagoa izan dezaten, Euskal Autonomi Elkarteko Administrazioaren presentzia, Gebenaldea antolatu eta

**AYUNTAMIENTO DE ZIERBENA**

ANUNCIO de corrección de errores del anuncio relativo a la aprobación del Estudio de Detalle para la Modificación de alineaciones del edificio n.º15 del B.º de la Cuesta del Municipio de Zierbena. 18076

# Disposiciones Generales

## PRESIDENCIA DEL GOBIERNO

**N°-5762**

LEY 15/1997, de 31 de octubre, de modificación de la Ley 5/1989, de 6 de julio, de Protección y Ordenación de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai.

Se hace saber a todos/as los/las ciudadanos/as de Euskadi que el Parlamento Vasco ha aprobado la siguiente:

LEY 15/1997, DE 31 DE OCTUBRE, DE MODIFICACIÓN DE LA LEY 5/1989, DE 6 DE JULIO, DE PROTECCIÓN Y ORDENACIÓN DE LA RESERVA DE LA BIOSFERA DE URDAIBAI.

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

A lo largo de los primeros años de vigencia de la Ley 5/1989, de 6 de julio, de Protección y Ordenación de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai, el Patronato de la Reserva ha desarrollado una intensa actividad administrativa, configurándose como punto de referencia de todos aquellos sectores sociales y entidades públicas y privadas que actúan en su ámbito territorial.

Tras la experiencia acumulada desde la entrada en vigor de la ley, se considera necesario proceder a la modificación de determinados aspectos que afectan tanto a la relación de los municipios integrados en su ámbito territorial, debido a procesos de desanexión, como al funcionamiento interno del Patronato.

De esta forma, y en primer lugar, se incluye la necesaria adaptación del artículo 2, referente a los municipios afectados por la delimitación de la Reserva de la Biosfera, con la incorporación de los de Ajangiz y Arratzu, motivada por su desanexión del municipio de Gernika-Lumo en virtud de los acuerdos de las Juntas Generales de Bizkaia de 20 de noviembre de 1990 y de 15 de octubre de 1992, respectivamente.

Asimismo, se plantea la necesidad de modificación del artículo 18 de la ley en lo referente a la composición del Patronato y al modo de designación de sus miembros, con la finalidad de incrementar la participación de los agentes intervinientes en la Reserva de la Biosfera de Urdaibai, incorporando una mayor presen-

kudeatzean dituen aginpidetzen arabera, handituz, bai eta udal ordezkaritza ere, eraginda dauden udalerrien kopuru handia dela eta, eta nekazaritza eta basogintza alorreko hiru ordezkari sartuz. Euskadin kokatuta egon eta ingurugiroaren azterketan eta babesean jokabide egiaztatua duten elkarteek zuten partaidetzak, ostera, beherantz jotzen du, Urdaibaiko esparruko elkarte ekologista eta kontserbazionistek mantentzen duten ordezkaritzak horien ekarpena bideratzen duela jotzen delako.

Zaingo Batzordeko eraketa berri honek horren osaketa orekatua dakar, badauden interesak ordezkatzen dituela eraginkortasuna murriztu gabe, elkarte ekologista, nekazaritza eta basogintza alor eta Udaletako ordezkariak izendatzeko moduak araudi bidez araupetuko direla ezartzearekin batera, azken hauek «proportzionalitate eta aniztasun politikoen printzipioak» beteta. Harik eta arauen garapen hori gauzatu arte, Batzordeburuari egokituko zaio izendapen horiek egitea, Zaingo Batzordeak irizpena eman ostean.

Azkenik, diseinatutako eskema berriarekin bat etorriz, Batzorde Iraunkorraren osaketa aldatzen da, horretan ere kide gehiago egongo dela.

*Lehenengo atala*

Urdaibaiko Biosfera-Gebenaldea Babestu eta Antolatzeari buruzko uztailaren 6ko 5/1989 Legearen 2. ataleko 2. azpiatala aldatu egiten da. Aurrerantzean honelaxe dio:

«2. atala

2.– Muga hauek ondoren ematen diren udalmugarteak dituzte barne, osorik edo zati batean:

Ajangiz, Amorebieta-Echano, Arratzu, Arrieta, Bermeo, Busturia, Elantxobe, Ereño, Errigoiti, Forua, Gautegiz Arteaga, Gernika-Lumo, Ibarrangelu, Kortezubi, Mendata, Morga, Mundaka, Munitibar-Arbatzegi Gerrikaitz, Murueta, Muxika, Nabarniz eta Sukarrieta».

*Bigarren atala*

Urdaibaiko Biosfera-Gebenaldea Babestu eta Antolatzeari buruzko uztailaren 6ko 5/1989 Legearen 18. ataleko 1. azpiatala aldatu egiten da. Aurrerantzean honelaxe dio:

«18. atala

1.– Urdaibaiko Biosfera-Gebenaldeko Zaingo Batzordea sortarazten da Eusko Jaurlaritzako ingurugiroko jardutze-sailari atxikirik, honako kide hauek dituela:

– Eusko Legebiltzarreko ordezkari bat.

– Euskal Autonomi Elkarteko Administrazioko bost ordezkari.

– Bizkaiko Foru Aldundiko hiru ordezkari.

cia de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco acorde con sus responsabilidades competenciales en la ordenación y gestión de la Reserva, así como una mayor representación municipal debida al elevado número de municipios afectados y dando entrada a tres representantes del sector agrícola-forestal. Decae, por contra, la participación que ostentaban las asociaciones de Euskadi con una trayectoria acreditada en el estudio y protección del medio ambiente, al considerarse que su aportación viene ya encauzada por la representación que mantienen las asociaciones ecologistas y conservacionistas del ámbito de Urdaibai.

Esta nueva configuración del Patronato da lugar a una composición equilibrada del mismo, de forma que representa a los intereses concurrentes sin merma en su operatividad, acompañándose de la remisión reglamentaria para la regulación de los modos de designación de las representaciones de las asociaciones ecologistas, sector agrícola-forestal y Ayuntamientos, estos últimos con observancia de los «principios de proporcionalidad y pluralidad políticas». En tanto no se produzca el mencionado desarrollo reglamentario tales designaciones corresponderán al Presidente previo informe del Patronato.

Por último, en coherencia con el nuevo esquema diseñado, se modifica la composición de la Comisión Permanente, que ve igualmente incrementado el número de sus miembros.

*Artículo primero*

Se modifica el apartado 2 del artículo 2 de la Ley 5/1989, de 6 de julio, de Protección y Ordenación de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai, que queda redactado como sigue:

«Artículo 2

2.– Esta delimitación afecta en todo o en parte a los siguientes términos municipales:

Ajangiz, Amorebieta-Echano, Arratzu, Arrieta, Bermeo, Busturia, Elantxobe, Ereño, Errigoiti, Forua, Gautegiz Arteaga, Gernika-Lumo, Ibarrangelu, Kortezubi, Mendata, Morga, Mundaka, Munitibar-Arbatzegi Gerrikaitz, Murueta, Muxika, Nabarniz y Sukarrieta».

*Artículo segundo*

Se modifica el apartado 1 del artículo 18 de la Ley 5/1989, de 6 de julio, de Protección y Ordenación de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai, que queda redactado como sigue:

«Artículo 18

1.– Se crea, adscrito al órgano ambiental del Gobierno Vasco, el Patronato de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai, compuesto por los siguientes miembros:

– Un representante del Parlamento Vasco.

– Cinco representantes de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

– Tres representantes de la Diputación Foral de Bizkaia.

– Eraginpeko Udaletako sei ordezkari.

– Estatuko Administrazioko ordezkari bat.

– Euskal Herriko Unibertsitateko ordezkari bat.

– Unesco-ren «Gizakia eta Biosfera» egitarauko ordezkari bat.

– Biosfera-Gebenaldearen azterkuntza eta babeste-lanetan izen ona duten Gebenaldearen esparruko elkarte ekologista eta kontserbazionistetako ordezkari bat.

– Gebenaldearen esparruko nekazaritza eta basogintza alorreko hiru ordezkari.

– Gebenaldeko Lankidetza Kontseiluburua.

Zaingo Batzordeburua, horko kideen artetik, ingurugiro organoaren proposamenez, Jaurlaritzak izendatuko du, araudi bidez zehazten den eran.

Gebenaldeko zuzendari-artatzailea osoko bilkuretara joango da, hitz egiteko eskubidea bai baina botorik ez duela».

*Hirugarren atala*

Urdaibaiko Biosfera-Gebenaldea Babestu eta Antolatzeari buruzko uztailaren 6ko 5/1989 Legearen 18. atalari 1 bis azpiatala erantsi zaio, hauxe hain zuzen:

«18. atala

1 bis.– Eraginpeko Udaletako, elkarte ekologista eta kontserbazionistetako eta nekazaritza eta basogintza alorreko ordezkaritza araudi bidez araupetuko da».

*Laugarren atala*

Urdaibaiko Biosfera-Gebenaldea Babestu eta Antolatzeari buruzko uztailaren 6ko 5/1989 Legearen 19. atala aldatu egiten da. Aurrerantzean honelaxe dio.

«19. atala

Zaingo Batzordearen barruan horren menpeko Batzorde Iraunkorra eratuko da, Zaingo Batzordeburua bera lehendakari duela; honako kide hauek izango ditu gainera:

– Euskal Autonomi Elkarteko Administrazioko hiru ordezkari, horietako bi ingurugiro organoak izendatuko dituela.

– Bizkaiko Foru Aldundiko bi ordezkari.

– Eraginpeko Udaletako bi ordezkari.

– Zaingo Batzordeko partaide diren gainontzeko erakunde eta entitateetako ordezkari bat.

– Seis representantes de los Ayuntamientos afectados.

– Un representante de la Administración del Estado.

– Un representante de la Universidad del País Vasco.

– Un representante del Programa «Hombre y Biosfera» de la Unesco.

– Un representante de las asociaciones ecologistas y conservacionistas del ámbito de la Reserva de la Biosfera con reconocido prestigio en el estudio y protección de la misma.

– Tres representantes del sector agrícola-forestal del ámbito de la Reserva.

– El Presidente del Consejo de Cooperación de la Reserva.

El Presidente será nombrado de entre sus miembros por el Gobierno a propuesta del órgano ambiental, en la forma que reglamentariamente se determine.

El Director-Conservador de la Reserva asistirá a las reuniones del Pleno con voz pero sin voto».

*Artículo tercero*

Se incluye un apartado 1 bis en el artículo 18 de la Ley 5/1989, de 6 de julio, de Protección y Ordenación de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai, con la siguiente redacción:

«Artículo 18

1 bis.– La representación de los Ayuntamientos afectados, de las Asociaciones ecologistas y conservacionistas y del sector agrícola-forestal se articulará reglamentariamente».

*Artículo cuarto*

Se modifica el artículo 19 de la Ley 5/1989, de 6 de julio, de Protección y Ordenación de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai, que queda redactado como sigue:

«Artículo 19

En el seno del Patronato y dependiente del mismo se constituirá una Comisión Permanente, cuyo Presidente será el de aquél, y que estará compuesta, además, por los siguientes miembros:

– Tres representantes de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco, de los que dos serán designados por el órgano ambiental.

– Dos representantes de la Diputación Foral de Bizkaia.

– Dos representantes de los Ayuntamientos afectados.

– Un representante del resto de las instituciones y entidades presentes en el Pleno del Patronato.

Gebenaldeko zuzendari-artatzailea Batzorde Iraunkorreko bilkuretara joango da, hitz egiteko eskubidea bai baina botorik ez duela».

ALDIBATERAKO XEDAPEN BAKARRA

Harik eta 18. atalean ohartematen diren Udaletako, nekazaritza eta basogintza alorreko eta elkarte ekologista eta kontserbazionistetako ordezkariak hautatu eta izendatzeko erak araudiz garatu arte, eta Urdaibaiko Biosfera-Gebenaldeko Zaingo Batzordeko zuzendaritza organoen funtzionamendu normala bermatzekotan, Zaingo Batzordeburuari egokituko zaio kasuan kasuko izendapenak egitea, eraginpeko alor eta erakundeek proposatuta eta Zaingo Batzordeak irizpena eman ondoren.

AZKEN XEDAPENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean lege hau.

Beraz, Lege honi men egiteko eta men eginarazteko agintzen diet, norbanako zein agintari direla, Euskadiko herritar guztiei.

Vitoria-Gasteizen, mila bederatziehun eta laurogeita hamazazpiko azaroaren seian.

Lehendakariordea,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Director-Conservador de la Reserva asistirá a las reuniones de la Comisión Permanente con voz pero sin voto».

DISPOSICIÓN TRANSITORIA ÚNICA

En tanto se proceda al desarrollo reglamentario de los modos de elección y designación de los representantes municipales, del sector agrícola-forestal y de las asociaciones ecologistas y conservacionistas, previstos en el artículo 18, y a fin de garantizar el normal funcionamiento de los órganos rectores del Patronato de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai, corresponderá a su Presidente, a propuesta de los sectores y entidades afectadas, previo informe del Patronato, realizar los nombramientos correspondientes.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente ley entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Por consiguiente, ordeno a todos/as los/las ciudadanos/as de Euskadi, particulares y autoridades, que la guarden y hagan guardarla.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a seis de noviembre de mil novecientos noventa y siete.

El Vicepresidente,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

## JAURLARITZAREN LEHENDAKARIORDETZA HERRIZAINGO SAILA

### Zk-5763

248/1997 DEKRETUA, azaroaren 4koa, diru bereizietarako diren kredituetako fondoak erabiltzeko aukera duten agintarien ondare-aitormenak jaso eta erregistratzeari buruzkoa.

Gastu bereizietarako kredituak nola erabili eta kontrolatu arautzeari buruzko maiatzaren 30eko 5/1997 Legeko 6. atalean jasotakoaren arabera, kreditu horietako fondoak erabiltzeko aukera duten agintariek euren ondare-egoerari buruzko aitormena egin behar dute, bai karguak hartzean bertan eta bai urtero ere.

Maiatzaren 30eko 5/1997 Legeko azken xedapenetatik bigarrenean esaten denez arautegian erabakiko da administazioko zein organoren ardura izango den ondareei buruzko aitormenak jaso eta erregistratzea. Justizi auzitegiek eta lege horretako 7. atalean xedatutakoaren arabera hautatutako legebiltzarkideek informazio horren berri izateko eskubidea eukiko dute.

## VICEPRESIDENCIA DEL GOBIERNO Y DEPARTAMENTO DE INTERIOR

### N°-5763

DECRETO 248/1997, de 4 de noviembre, sobre el depósito y registro de las declaraciones patrimoniales de las autoridades que tengan acceso a la utilización de fondos procedentes de créditos destinados a fondos reservados.

El artículo 6 de la Ley 5/1997, de 30 de mayo, reguladora de la utilización y control de los créditos destinados a gastos reservados, prevé que las autoridades que tengan acceso a la utilización de fondos procedentes de estos créditos estén obligados a efectuar una declaración sobre su situación patrimonial en la toma de posesión de sus cargos, así como anualmente.

La Disposición Final Segunda de dicha Ley 5/1997, de 30 de mayo, remite al desarrollo reglamentario para la determinación del órgano de la Administración encargado del depósito y registro de las citadas declaraciones patrimoniales a los que tendrán acceso los tribunales de justicia y los parlamentarios elegidos conforme al artículo 7 de la Ley antedicha.